

FAZIZGOAREN ZERBITZARIEK EZ DUTE KRITIKAREN AXOLA

Iñaki Aginaga

Zientziak bere "lege" bereziak ditu, bere bide bereziaz ezagutzaren bila ari, aurkitu-gaberik ba-da ere, bere bizi-lege ta xedeak formazko ta hipotesizko izanik ere. Hortan dauka bere ezin-bestezko izaera, konzeptuen tautolojian finkatua. Ezin on-har dezake gobernutik, elizatik edo nola-baiteko moraletik datorren legerik, bere izaera bera ezerretu gabe. Politigoa, gobernu, aldiz, indarraren edo indarkeriaren bidez gizonen kudeatzeko eginak dira. Nolabaiteko diktatorgoak edo berdin demokrazizko gobernu argitsuak emandako aginteeek garrantzi haundia daduzkate, hortikan indarraren -edo indarkeriaren- bidez kudeatuko baidituzte gizonak. Ez dute ordean balio-izpirik zientziari buruz. Ez dute gobernuek den kalitate mendrenik "zientzizko egia" non den esateko, edo-ta zein den horren aurkitzeko bidea, indarraren bidez holako ideiak sar-araziz. (Holako joera "eztitxo" batez esaten da politik-alderdien arteko "oreka" gorde behar duela zientziak. Holako "oreka" baten ardiestea alderdi batzuren interesa dateke. Zientziaren xede ta balioek ordean ez dute delako "oreka" horrekin zer-egitekorik).

Gobernu batek legeztatu, kudeatu edo inolaz ere mugatua den neurrian, "zientzia" daritzaten hura gobernuaren ideoloji orokor baten izkilua da, totalitarizgoaren ezaugarri segura. Ez zaio inolaz ere fidatu behar ahalmen osoa duenari. Besteak ixil-arazteko ta bakarrik itz-egiteko eskubidea indarkeriaren bidez bere ganatu duenaren esanetan ez da sinestekorik.

Hixtoria ta egia ilundu eta suntsitu nahi dutenekin oso kontuz ibili behar da, berdin "bereterra ala laikoa"-k izanik ere. Zientzizko ta arrunteko egia ere izkutatzen eta suntsitzen dutenak ideologiaren zerbitzu, berenez edo enplegatu, pagatu ta bideratu izanez, ez dire zientziaren zerbitzari, laidostatzale ta suntsitzale baizik, bestelako xedeen probetxu. "Holako gizona nik zitala daritzat".

Gaizki egina ta esana ahalik-eta hobeki antolatuz eta ordainduz gero barkapena eskatu (lortzen ez ba-dute ere), ixilik egon eta ikasi behar lukete, arras falta zaioten lotsa baldin balute.

Demokraziaren alde dagona, bakarrean eta arraposturik ezin-emanetz esaten diren guztien da beldur, gezur beteak edo egia borobilak izanik ere. Fazizgoaren aldekoa, askatasunean aterako ideiei guztien da beldur, menperatutako ez den gizonaren beldur bai-da. Hori du "ikaratzale" haundia.

Inperializgoaren ideologian, propagandak ta psikolojizko-gudak ezerreztu dute egia, gizarteak enganatuz hobekian menperatzen bai-dituzte. Faltsukeria ta gezurrak, mito eta aurretikan ezarrirako esentziak, hipostasi hutsak, printzipio-eskea ta itzetako-kontraesaerak, izen-zentzu berezien en azpikoz-goitiko aldaketa, formazko-lojistikaren mexprexu betea dituzte oin-harri. Aldi berean, itz-zarata ta ke-odeien bidez jendeak gor, itsu, xoro ta ergeldu-egiten dituztelarik.

Fazizgoaren zerbitzariak ez dute kritikaren axola, ez-eta egiazko eztabaidetan sartzeko interesik. Aski ta hobeago zaiote bide orotatik propaganda ta psikolojizko guda-bideetatik ahalegindu. Bere aldeko ideiak sar-araztea ez dute berriz xede berezia. Aski zaizkiote askotan zarata hutsez komunika-bideeen bete ta ixtea. Lehenagoko faziotiar atzeratuak kanpai-ots eta halakoez baliatzen ziren, gaixoak. "Hobekiagoko" tresnak erabiltzen dituzten gaurkoan. Askotan berdin aski dute beren kontra den jendeari denbora gal-araztea eta buru ta esku-egikera beharrezkoetatik aldegin-arazi. Adimen haundiko gizonak ez dire horretarako behar. Asto-ahalenek ere ederki edo-ta hobeki egiten dute holako lan zikina, beharreko gehienak eta ongi tresnatuak ba-dagoz. Ez da, horrengaitik, faltsukeriak behin eta berriz "ukatuz" denbora galdu behar, tranpa hortan erorita etsaiaren jokia beti egiten bai-da. "Gorotza zer den ezaguna dugunetik, ez dugu behin eta berriz hortan sudurra sartu behar, metaren bat aurkitzen dugun bakoitzean". Funtsezko ta egiazko kritika, orotako strateji-harremanetan egiten da, ez konzeptu berezien eremuan. Holakoak gure herriak ulertzen ba-ditu, ez dute faziotarrek partida irabazia, azkatasunaren sugarrak bizirik dirauno Napar-erresumaren lurralde okupatuetan.

Euskal Herria, 2013ko Uztailak 4.